

## IPAR-AMERIKETAN ARTZAINAK

Eun eta berrogei ta amar urte d'ira lenengo euskaldunak artzain izateko Ipar Ameriketara joan zirala. Ainbat milla gazteri zabaldu jaken bidea, lurralde zabal areitan bizitokia emonda.

Lan ori latz eta gogorra ei zan eta euskaldunak baiño bes-terik ez ei zan iñor gai zeregin ori beteteko. Eurak euken almena, bakartada aundi aretan aldi luzeetan bizi izateko. Orregaitik, Amerikarrak pozik artu ebezan artzain euskaldunak, koloni-antzera an bizi izateko, eta itzaltasuna ta esker ona erakutsi eutsezan. Euskaldunak be zintzo erantzun eben, ameriketarrek eurak autortzen dabenez.

Euskaldun dan artzainia Laterri Batuetan ezaugarri edo sinbolo biurtu da.

\*\*\*

Orain urte bi dirala, irailaren 3'an, egin zan Reno'n Artzainari eskiñitako irudi baten asiera-ospakizuna. Irudiak 350.000 dolar balio ebazan.

Nok asmaurikoa zan irudi ori?

Orain bost urte dirala, Zengotita-Bengo'tar Erramon, ameriketan bizi zan durangarrak, asmau eban Artzain euskaldunaren gomutaki izango zan irudi bat ezartea. Lenengotan asmo ori ez zan onartu, baiña asmatzaillea iraunkorra izan zan eta bere ondoren ona lortu be bai.

Lenengo, orretarako batzorde bat sortu eban, idazki bat argitaratu, asmo au aurrera eroatea eskatu, Ardantza Lendakariari, baiña Nebada, Idaho ta Kalifornia'ko agintari nagusiai be barria bialdu eutsen.

Idazki onen elburua, asmo ori toki ezbaridinetan ezagutu eraztea zan.

Beingoan artu eban indarra burubide onek Ameriketara, Euskadi'ko iparraldean, Naparroan eta Jabetzadun Alkarteko iru lurraldeetan eta dirua batu zan asmo ori beteteko.

\*\*\*

Laguntzaren baietza artu-ondoren, irudigilleai norgeiagora dei egin eutsen eta ertilari euskaldun eta ameriketarrek ekarri ebezan euren irudiak eta epai-maikoak Nestor Basterretxearena onartu eben: Giza-frudiaren ondoan beste mailla baten irudigintza bera eta beste gai egoki batzuk agertzen dira.

Basterretxea ertilariak bere erti-lanak barruan eukan burubidea agertu eban.

\*\*\*

Orain irakurleak, bear ba da, bere artean esango dau: Iparrameriketara joan ziranak eta joaten diranak, etorten ete dira barriro Euskalerrira?

Baten batzuk etorten dira, baiña ez asko.

Arlo onetan ara zer diñoskun Lasalt'ek: Nire aita eta aiti-ta batera etorri ziran euren antxiñako baserrira, ikustaldi bat egitera. Aitari emen geratzeko esan eutsonean, ezin erantzun izan eban baietz. Orain ez dago emen nire etxerik —esan eban— nire etxea Nebada'n dago.

LETONA'k

### LAUGARREN "TXOMIN AGIRRE" IPUIN SARIKETA

#### BETE BEARREKO ARAUAK

- 1.— Sariqueta onetara aurkeztuko diran lanak, euskeraz idatzita izan bearko dabe. Bakoitzak gura dauan gaiatzaz, baiña norberak asmatutakoa ta ez beste izkuntzan batetik euskeratua.
- 2.— Eskuz nai idaz-gailluz idatzita, itz garbi, ulerkorra, ta lerrorik lerrora bitarte egokiaz.
- 3.— Idazkiak aurkezteko epea, Abenduaren 15 azken eguna izango da. Zuzenbide onetara bialdu.  
ERREKALDEKO LAGUN ARTEA KULTUR TALDEA  
General Salazar 4-1  
48012 BILBAO
- 4.— Ipuin sariqueta au, mailla bitan izango da.  
LENENGO MAILLA.— 13 urtetik berakoentzat  
SARIAK  
Lenengoa 7.000,— Pts.  
Bigarrena 4.000,— Pts.  
Urrengo 25'entzat 2.000,— Pts.

LUZEERA.— Orri oso bat gitxienez.

BIGARREN MAILA.— 14 urte goragoentzat.

SARIAK

Lenengoa 10.000,— Pts.

Bigarrena 6.000,— Pts.

Urrengo 25'entzat 2.000,— Pts.

LUZEERA.— Orri oso bi gitxienez.

Idazkien luzeera, sariak banatzean epai-maikoak kontuan izango dabe.

BIZKAIERAZ. Euskalki onetan idatzitako lan guztiak sari berezia izango dabe.

6. Aurkeztutako idaz-lan guztiak sarituak izango dira.

7. Epai-maikoen erabagiak aldatu-eziñekoak izango dira. Sari banatzea Urtarrillaren 2an gure egoitzan izango da.

General Salazar 4-1

Bilbon.